

URDAIBAI

2021
zenb. 26
.....

©MAGAZINE

GAVIOTA

itsas zabaleko burdinazko isla

| GERNIKA-LUMOKO BATZARRETXEAK

| ELKARRIZKETA. ANA MARIA ZUBIAGA
ZIENTZIALARI FORUTARRA

| PROBALEKUAK

| NESTOR BASTERRETXEAK, KALE-IBILBIDE
ESKULTURALA

| TURISMO JASANGARRIAREN EUROPAKO
GUTUNA

| SORGINEN ORDUA URDAIBAIN

1/6

Zenbaki hau produktuaren arriskuaren adierazlea da: 1/6 zenbakiak arrisku txikiagoa adierazten du, eta 6/6 zenbakiak, berriz, handiagoa.

Kutxabank Kreditu Erakundeen Gordailuak Bermatzeko Funtsari atxikita dago. Funts hori urriaren 14ko 16/2011 Errege Dekretuan aurreikusita dago. Funts horrek gaur egun gehienez 100.000 euro bermatzen ditu gordailugile bakoitzeko.



Doako istripu-aseguru berria.

Babestu hobeto gehien maite duzuna.

Gaztedi Planarekin, 1.000 euroko gutxieneko saldoa badaukazu, doako aseguruia izango duzu⁽¹⁾, egoerarik txarrenetan haiek babestuta edukitzeko.

Orain, gainera, **doako Aseguruaren prestazioa handitzeko aukera duzu⁽²⁾, bere lehenengo inbertsio-fondoa kontratatuta⁽³⁾**

Horrela, gurasoak istripuz hil ezker, adingabeek **Gaztedi Planarengatik hilean 200 euroko errenta izango dute 18 urte bete arte eta 300 euro gehiago Inbertsio fondoarengatik.**

kutxabank

(1) Doako Aseguruak guraso baten heriotza estaliko du bera istripuz hiltzen bada. Aseguruia baliagarria izateko, Gaztedi Planak honako baldintza hauetako batzuk bete behar ditu: 1.000 euroko edo gehiagoko saldoa egotea istripua gertatu aurreko egunean edo 1.000 euroko edo gehiagoko batez besteko saldoa egotea istripua gertatu aurreko sei hilabeteetan. Prestazio honen bidez, hileroko 200 euroko errenta ordainduko zaio onuradunari, istripua gertatu den egunetik Planaren titularrak 18 urte bete arte. KUTXABANK SAK 055-1980019878 zenbakiko istripuetarako aseguru-poliza kontratatu du MAFRE VIDA, Sociedad Anónima de Seguros y Reaseguros sobre la Vida Humana aseguru-etxearekin. (2) Gurasoen edo tutoreen istripuagatik heriotza estaltzen duen Doako Aseguruia, baldin eta istripuaren aurreko egunean Inbertsio Fondo/Fondoen Zorro Delegatu bakar batean 1.000 euroko edo gehiagoko saldoa badago. Prestazio honen bidez, hileroko 300 euroko errenta ordainduko zaio onuradunari, istripua gertatu den egunetik kontratuaren titularrak 18 urte bete arte. KUTXABANK SAK, ondore hauetarako, 055-1980019878 zenbakiko istripuetarako aseguru-poliza kontratatu du MAFRE VIDA, Sociedad Anónima de Seguros y Reaseguros sobre la Vida Humana aseguru-etxearekin. Folleto osoa nahiz inbertsio-fondo bakoitzari buruzko inbertitzailearentzako oinarritzko datuak dakartzan dokumentua CNMVn daude. Gainera, CNMVen, Sozietate Kudeatzailean, bulegoetan eta www.kutxabank.es webgunean jaso daitezke.

IZAN ETA BIZI

Busturialdea bizi-bizirik dagoen eskualdea da. Bere historia eta kultura lurralde txiki, aparteko eta desiragarri batean finkatzen dira. Geroari buruzko eztabaida ia iraunkorra da, eta etorkizuna ikusi gura dogu. Busturialdearen zati handi baten ardatza "Urdaibai" da, marka horrek tokiko herritarren buruan lekua irabazten dau eta kanpotik identifikatzen gaitu.

Geurean hamarkadak behar izan dira "Urdaibai" balio erantsitaz hartzeko. Biosfera Erreserba lez "eremu berdea" izatetik, bere zeharkako balioaz ohartzera iritsi da, eta balio hau garapen-ildo estrategiko bakoitzari gehitzen jago, publikoa zein pribatua izan. Gero eta gehiago, etorkizunerako ideiak, bertoko ekimenak eta erakundeen planak geure esentzia bereizleak eskatzen dauen espiritu jasangarrian murgilduta dagoz.

Gaur arte ekarri gaituen ibilbide zailak asko irakatsi deusku. Ikuspegia irabazi dogu, partaidetza normalizatzen hasi da eta eraginkortasuna lortzeko behar besteko kohesioa eskatzen hasi da. Bide luzea dago egiteke, baina ideiak, berez multidimentsionalak, gero eta gehiago sortzen dira osotasun kulturaltzat hartzen dan lurraldetik, eta aurrerapen horrek jarrera, plan eta konpromiso koherenteak gehitzen dauz. Epe laburrean ekintzak, emaitzak ikusi behar doguz. Banakako konpromisoekaz eraikitako konpromiso globala behar dogu. Guztiok gagoz honetan barne.



ARGITARATZAILEA

NUEVA EUROPA S.L

Carlos Gangoit, 15, bajo
Gernika-Lumo (Bizkaia)
nuevaeuropa@nuevaeuropa.eu
www.nuevaeuropa.eu

HARPIDETZA

Aldizkaria jaso nahi badozu, gugaz harremanetan jarri hemen:

urdaibaimagazine@nuevaeuropa.eu
tel.: 94 625 06 06

www.urdaibaimagazine.eu

URDAIBAI MAGAZINE NUEVA EUROPA S.M-REN LANTALDEAK BURUTU DAU

Urdaibai Magazinek ez dauz bere gain hartzen hirugarrenek emondako eritxiak edo egindako komentarioak.

Azaleko argazkia: Enagás


LEGE GORDAILLUA: BI-153-2015

Aldizkari honek **Bizkaiko Foru Aldundiaren** laguntza jaso dau.

PUBLIKAZIOA DATA: 2021.07.30



AURKIBIDEA



- 04** ERREPORTAJEA. Gaviota.
- 09** KOLABORAZIOA. Amaia García Uriondo
- 10** DANONARTEAN.
- 16** VISIT URDAIBAI. Gernikako Batzarretxea.
- 18** ELKARRIZKETA. Ana Maria Zubiaga. *Zientzialari forutarra.*
- 24** LEKUKO. Probalekuak.
- 26** KALERIK KALE. Nestor Basterretxea.
- 28** SALTSA PORRU. Marmitakoa.
- 30** BERDEAN. Turismo jasangarriaren Europako gutuna.
- 32** BETI JAI. Sorginen ordua Urdaibain.

Gaviotan
biltegitratutako gasa
etxeetara eta
industrietara iristen da,
eta ziklo konbinatueta
elektrizitatea sortzeko
be erabiltzen da.



GAVIOTA

itsas zabaleko burdinazko isla

Urdaibaiko zeruertzak bi silueta paregabe oparitzen deuskuz, Izaro irla, nortasun naturalaren ikurra, eta "Gaviota", egitura metaliko itzela, ur gainean azaleratu eta lurretik jakin-minez ikusten doguna. Denboraleen eta denboraren igarotzeari aurre egiten deutson plataforma bat da, eta Euskadin martxan dagoen gas naturalaren lurpeko biltegi bakarra da.

Gaviota" Urdaibaiko paisaian irudi iraunkorra da, garapen jasangarriagaz, trantsizio ekologikoagaz eta Euskadiko energia-kudeaketaren historiagaz lotura zuzena daukon azpiegitura da.

Baina zer da "Gaviota"? Gaur egun, gas naturalaren lurpeko biltegia da, eta, beraz, funtsezko funtzioak betetzen dauz gas-sistemaren barruan, hornidura bermatzen laguntzen baitu: udako eta neguko hilabeteen arteko kontsumo-aldeak modulatzeko, eta erreserba estrategikoen koltxoi bat mantentzen dau. Halanda be, 1994 arte eta 9 urtez, gas naturala erauzten zan hobi bat izan zan.

Erraldoi honen historia 1976an hasi zan, Repsol, Murphy eta Ocean multinazional energetikoek osatutako elkarte bati kostaldeko esplorazio-baimenak esleitu jakozanean. 1980an egin zan lehen zundaketa, Bermeoko kostaldetik 8 kilometrorra egoan gas hobi bat aurkituz. Lehen bideragarritasun-ikerketek, 1982 eta 1983 artean, merkataritza-ustiapenaren aukera berretsi eben, eta 1984an plataforma itsasoan eta lehorreko instalazioak eraikitzen hasi ziran, Matxitxako parean. 1985ean, lehenengo hobia martxan jarri eta zulatzen hasi zan. Urtebete geroago, lehen gas komertzialaren ekoizpena hasi zan.

1994an, Gaviotak lurpeko biltegitratze jarduera hasi eban, ekoizpen fasea bukatutzat emon eta beharrezko egokitzapena egin ondoren, antzinako hobiko instalazioak aprobetxatzeko. Esan liteke "Gaviota" k naturan duela milioika urtetik emoten dan egoera imitatzen dauela

GAS NATURALA, ESTRATEGIKOA ETA JASANGARRIA

"Gaviota" k gas naturala biltegitratzen dau, ingurumena errespetatzen dauen energia-iturririk garbienenetako bat. Gainera, energia ekonomikoa eta eraginkorra da, eta oso eginkizun garrantzitsua betetzen dau horniduraren segurtasunerako eta lehiakortasunerako. *"Gas naturala aukera segurua eta moldakorra da, etxeko, merkataritzako eta industriako sektoreetan energia-eskaria asetzeko gai dana. Gainera, ezinbestekoa da potentzia-premia handiak daukozen sektoreentzat, hala nola industria intentsiboarentzat edo garrario astunarentzat, gaur egun elektrifikazioa ez baita irtenbide bat"*. Garraioaren esparruan, erregai jasangarrienetako bat da, eta airearen kalitatea hobetzeko eta emisioak murrizteko giltzarrietako bat. *"Izan be, NOx emisioak % 80-90 inguruan murriztea ahalbidetzen dau, CO2 emisioak % 20-30an eta SOx eta partikulenak ia %100ean erregai tradizionalakaz alderatuta. Bere papera funtsezkoa izaten ari da itsas garraioan, eta horretarako aukera iraunkor bakarra da gaur egun"*, azaldu dau Enagas Gas-sistemaren Kudeatzaile Teknikoak eta Gaviotaren egungo jabea.

Eta nora doa "Gaviota" ren gasa? Hemen bildutako gasa etxeetara eta industrietara iristen da, eta ziklo konbinatueta elektrikitate sortzeko be erabiltzen da. Euskadin kontsumitzen da, baita Estatuan be, eta beste herrialde batzuetara be esportatzen da.

Enagas, Espainiako gas-sistemaren kudeatzaile teknikoa dan aldetik, Espainiako gas naturalaren oinarritzko sarearen >>>

1976

Bizkaia ByC ikuskapenerako kostaldeko baime-nak esleitzea

1980

Lehen ikuskapen-zundaketa eta Gaviota gas naturalaren hobiaren aurkikuntza

Ba al zenekien?

• Gaviotako gas naturalaren biltegi-ratzea 2.150 metroko sakoneran dago, Matxixako lurmuturretik 8 km-ra, Bermeoko ipar-mendebaldean.

• Helikopteroz bakarrik hel daiteke. Plataforma lurretik ikusteko lekurik hurbilena Matxixakoko punta da.

• 1980an aurkitu zan gas-eremuan, Bizkaia B-1 zundaketaren bidez, 12.000 milioi metro kubikoko gas-erreserbak ebaluatu ziran. Egunean 4-6 milioi m³-ko produkzioak izatera heldu zan.

• Gaviota-k 2.681 milioi metro kubiko normal biltegitratzeko ahalmena dauko

• *Espainiak kontsumitzen dauen gas natural ia guztia inportatzen dau, eta biltegitratze estrategikoak funtsezkoak dira energia-horniduraren segurtasuna bermatzeko

• Ekialde Ertaina da gas naturalaren erreserba handienak daukon eremu geografikoa, munduko guztizkoaren % 43gazn (Iran eta Qatar nabarmentzen dira), eta ondoren Erdialdeko Asia % 31gaz (batez be Errusia eta Turkmenistan).

• Erreserbak, lurpeko biltegitratzeek ez ezik, gas natural likidotuen (GNL) plantekaz be betezen dira, hoietara munduko edozein herrialdeetatik gasa garraiatzen daben ontziak irits baitaitezke.

eta enbor-garraioaren eragiketaz eta kudeaketa teknikoaz arduratzen dan konpainia da. Energia erraldoi honek Gaviota biltegia erosi eban 2010ean, ordura arte Repsolek kudeatzen ebana. *"Kudeatzaile teknikoa garen aldetik, geure eginkizun nagusia gas naturalaren horniduraren jarraitutasuna eta segurtasuna bermatzea da, bai eta sarbideen, biltegitratzeen, garraioaren eta banaketaren arteko koordinazio egokia bermatzea be. Konpainiak modu independentean, gardentasunez eta Gas-sistemako gainerako eragileekaz koordinatuta egiten dau lan"*, azaldu dau Enagasek.

Gas naturala jatorri naturaleko gas arinen nahasketaren hidrokarburoa bat da. Batez be metanoa dauko, eta batzuetan karbono dioxido, nitrogeno, azido sulfhidriko edo helio portzentaje txiki bat. Deskonposizioan dagozen landareen eta animalien zenbait geruza bero bizian eta presio bizian agertzen direnean sortzen da, milioika urtetan zehar. Hasieran landareek eguzkiatik lortzen daben energia lotura kimiko lez biltegitratzen da gasean. Bere errektuntzak askatutako energia-iturri fosil garrantzitsua da.

Gas naturala Estatu Batuetan XIX. mendean hasi zan ateratzen eta argiztapenerako erregai lez erabiltzen zan, baina gaur egun erabilera ezberdinak daukoz. Eraikin eta prozesu industrialen berokuntzarako nahiz erregaietarako erabiltzen da, eta gero eta gehiago erabiltzen da kamioietan, autobusetan edo itsasontzietan, gas natural konprimatu (GNK) edo gas natural likidotu (GNL) moduan. Azken hori gas naturala da, eta modu likidoan garraiatzeko prozesatua. Horrela, haien garraioa errentagarria da, itsasontzi berezietan egiten dana, metano-ontzietan. Bizkaian Bahía Bizkaia Gas terminala daukagu, birgasifikazio-planta bat. Bertan, gas naturala egoera likidoan jasotzen da munduko hainbat herrialdeetatik etorritako metano-ontzietan. 2020an, adibidez, 14 herrialde-tako gasa jaso zan, eta horrek hornidura une oro bermatzea ahalbidetzen dau. >>>



1982/83

Merkatal ustia-
penerako aukera
berresten daben
bideragarritasun-
ikerketak

1983

Gaviota I
eta II ustia-
pen-kontsezi-
noak emonda,
2013ko indar-
rraldiagaz

1984

Plataforma
eta lurreko
instalazioak
eraikitzen
hasi ziran.
Bien arteko
lotura-bideen
ezarpena

1985

Lehenengo
hobia mar-
txan jartzea
eta zulaketa
hastea

1986

Lehen gas
komertziala-
ren ekoizpe-
na hasten da

1994

Gaviota
lurpeko
biltegia lez
hasten da,
ekoiz-
pen fasea
amaituztat
emonda eta
beharrezko
egokitza-
pena egin
ondoren

2010

Enagasek
Gaviota
erosten
dau



***Itsasoan noraezean dabilela dirudien enpresa
handi bat da, baina 50 pertsonako plantilla
sendoak gidatzen dau.***

"Gaviota" plataforma itsasotik ikusita.

LURRARI LOTUTA

Gaviota EAeko gas naturaleko ustategi bakarra da. Plataforma itsasoan ainguratuta dago 20 piloterekaz, eta lehorrean, Matxitxakoko lurmuturrean dagoen, tratamendu-instalazio batez konektatuta dago gasbide baten bidez. Gasa atera zan urteetan, 1994. urtera arte, 105 metroko ur-geruza baten gainean ateratzen zan erregaia, hiru hobien bidez, eta gasa Matxitxakoko tratamendu-instalaziora garraiatzen zan, gasbideen-sareaz lotuz. Bertan, gaur egun, prozesu bi egiten dira, injekzioa eta erauzketa. "Injekzio-prozesuan, gasbideen oinarritzko saretik datorren gas naturala konprimitu egiten da, biltegitzearen sakoneko formazioetan injektatu ahal izateko. Erauzketa-fasean, gas naturala biltegitzetik ateratzen da, gasbideen oinarritzko saretik garraiatzeko

"Gaviota" k duela milioika urtetik naturan dagoen biltegitze prozesu naturala imitatzen dau.


eskutzen diren zehaztapenak bete daian. Azkenik, lurrindu egiten da (gas usaintsu bat gehitzen jako usainbako gas naturalari) sarera bidali aurretik", azaldu dabe Enagasetik.

Gaviota plataforma lurretik ikusita, zaila da imajinatzea zelan funtzionatzen dauen, baina egunez egun, 50 pertsonako talde batek egiten dau lan bertan, operadore, teknikari, agintari eta administrariaren artean. Enpresa handi bat, "Itsasoko industria-instalazio" batean, itsasoan noraezean dabilela simulatzen dauena, baina tripulatuta dagoena, in situ eta, lurretik, telematikoki, bere langile ugariengatik, bere lantokira helikopteroz doazenak. Plataformaren instalazioak honako hauek osatzen dira: gasa injektatzeko konpresoreak, injekzio-erauzketa-hobiak, zulaketa-dorea, akomodazio-modulua eta instalazio

osagarriak, atsedene-guneak, jantokia eta gimnasioa langileentzat. Langileak bost egunez egoten dira "Gaviota" n. Asteazkenean zehar, laguntza-ontzi bat arduratzen da elikagaiak hurbiltzeaz.

Eragiketen segurtasuna bermatzeko, suteak ixteko, detektatzeko eta itzaltzeko sistema automatikoak dauko, bai eta larrialdietan langileak ebakutzeko baliabideak be. "Enagasetzat, lehenetasuna da pertsonen, instalazioen eta gure ingurunearen segurtasuna. Gaviota biltegia instalazio segurua da eta ingurumena errespetatzen dau. Enagasen geure azpiegitura guztiak eraginkortasun-irizpide zorrotzei jarraituz kudeatzen doguz, ahalik eta segurtasun eta eskuragarritasun handiena bermatuz, eta jarduten dogun ingurunea ahalik eta gehien errespetatuz".

UM



mendexa
ABENTURA PARK


ABENTURA PARKEA
ETA TIROLINAK

Guztion neurriko zirkuitoak

Tel. 688856283
info@mendexpark.com
www.mendexpark.com



Turistak Gernika-Lumon
Chillidaren "Gure Aitaren etxea"
bisitatuz.



TURISMOA

POZTASUNAREN NEGOZIA DA
. Bizipen paregabeak saltzen dituen jarduera.

AMAIA GARCÍA URIONDO

Gernika-Lumoko Turismo Teknikaria.

Covid pandemia hasi zenetik, etxetik kanpo egotea da gehien amesten duguna. Bidaiak egitea, leku ederrak ikustea, beste kultura baten parte sentitzea. Guk kanpora bidaiatzen dugunean, han aurkituko dugunari buruz izaten ditugun espektatibak eta turismoa egiten hona datozenenak, berdinak dira.

Baina azkenengo urteotan askoren iritziz, turismoa gu inbaditzera datorren mamua da. Eta zalantzak ere izaten ditugu, hona datozenak kalitatezko bisitariak dira? Nik

neuk beste era batera egingo nuke galdera hori. Gure eskaintza turistikoa kalitatezkoa da? Arduratsua da? Ba zelako eskaintza, halako bezeroa.

Neurri egokiak hartu behar dira beraz eskaintza turistikoa arduratsua izateko. Bisitarien eta biztanleen arteko oreka lortzeko. Toki bat baliabide turistikoa bihurtu aurretik aztertu behar dugu zer inpaktu izango duten bisitariak ingurunean eta gizartean. Eta finkatu zein den toki horri dagokien karga ahalmena, toki horretan eskainiko den bizipena kontuan hartuz. Ulertzen badugun zer den han ikusten eta bizitzen hari garena, orduan lotura bat

sortuko da toki horren eta gure emozioen artean. Ze ulertzen ez denak ez du baliorik, ez da errespetatzen, ez da zaintzen ere eta azkenean galtzeko zorian egongo da, bai euskaldunentzat bai kanpotarrentzat.

Turismoa garatzeko beste ikuspuntu batetik abiatu behar dugu. Gure tokiak beste era batera zaindu behar ditugu. Guztion ametsak, hemengoena zein kanpotarrena, errealitate bihurtzeko. Gainera ezin dugu ahaztu jarduera honek gaitasuna duela gizartean eragin ekonomiko orekatua sortzeko, gu inbaditzera datorren mamua gure aliatua izan behar da, ez arerioa.



Urdaibaiko
itsasadarraren jaitsiera



Kanoa/Kayak

SUP - Stand Up Paddle

Telf: 94 627 66 61 / 688 635 190



www.urdaibai.com

info@urdaibai.com

ARRATZUKO UDALA



**UDAL WEBGUNE TURISTIKO BARRIAK
HERRIKO EDERTASUN NATURALA, ONDARE
HISTORIKOA ETA LANDA-DINAMISMO
ERAKARGARRIA ERAKUSTEN DAUZ**

Ondare, arkeologia, historia eta natur baliabide balioetsuak gordetzen dauz Arratzuk, bere bilakaeraren, garai bateko bizitzaren eta nortasun aktibo, errespetutsua eta barritzailearen lekuko. Herriak, bere balioez, historiak utzitako arrasto ezabaezinaz eta herritarrek kontserbatzen jakin daben arrastoaz harro, "digital-ki" zabaltzen dauz bere webgune turistikoa estreinatu barriaren bidez: www.turismoarratzu.eus, landa-paisaia ederreko herri txukun honetara zabalduko leihoa. Intuitiboa eta nabigatzeko erraza dan atari turistikoa honetan, aipatutako ondare historikoaz gain, auzo bitxiak be protagonismo berezia dauke, bidegorrien sarearen bidez konektatutakoak; honakoak agertuz: Done Jakue Bidea, Santo Tomas eliza bikainagaz; pertsonaia ospetsuak, hala nola Manu Leguineche, Arratzuko seme kuttuna; herriko produktu askotarikoak eta kalidadezkoak, nekazaritza eta abeltzaintzako jarduera tradizional eta ekintzailearen emaitza; bertako tabernetako gastronomia eta beste zerbitzu batzuk, Arratzu herri eroso eta atsegina bihurtzen dabe guzti hauek. Mugikortasun jasangarriaren aitzindaria izanda, turismo aktiboa be Arratzuko eskaintzaren parte da, bidegorrien sare zabalagaz, oinez edo bizikletaz gozatzeko, eta paisaia ederretan barrena doazen mendiko bidezidorrakaz, ibilbide osasungarriaren kasu. Webgune turistikoa herriko garapen ekonomikoa sustatzeko beste ekimen bat da. Arratzuko potentzial turistikoa natural eta kultural handiari balioa emonez, eta herria eta bere magnetismoa *in situ* ezagutzeko gonbidapena eskainiaz.

BUSTURIKO UDALA

**ALTAMIRA OINEZKOENTZAT EGITEAK
BERE NUKLEO SOZIOKULTURALAREN IZAERA
SENDOTUKO DAU**

Auzotarren segurtasuna ezinbestekoa da Busturiako Udalarentzat, batez be eskoletako haurrena; horregatik, Altamira auzoa urbanizatu eta oinezkoei lehentasuna emongo deute ibilgailuen aurrean. Proiektu honegaz, Udalak auzoko hirigintza baretzeaz gain, auzotarren eskaerei erantzungo deute. Jarduerak Altamirako plazaren ingurua hobetuko dabe, herriko topagunea eta herritarren aisialdirako lekua. Bertan, eskola, frontoia, kultur etxea, tenis-pistak, San Migel eliza, haurrentzako jolas-guneak eta ostalaritzako bi establezimendu dagoz, erakargarritasun gastronomiko handia emoten deutoenak. Ere mu horretan, bidearen kota igoko da oinezkoen gunearen jarraitutasuna lortzeko, eta gehieneko abiadura orduko 20 kilometrorra mugatuko da. Gainera, oinezkoentzat bakarrik diran eremuak erreserbatuko dira. Altamirako 49-51 bide-zatian be bidea zabalduko da; ikuspen gutxi bidea da, eta zabaldu egingo da, oinezkoak eta ibilgailuak aldi berean igaro ahal izateko, segurtasuna bermatuta. Beste jarduera bat Altamira kaleko 32. zenbakian dagoen orube batean aparkaleku bat egitea da. Aparkaleku hori 28 ibilgailu sartu ahal izateko egokitu da. Proiektuak auzoaren bultzada urbanistikoa eta funtzionala dakar, Busturiako bizitza soziokulturalaren erdiguneetako bat baita. Lan hauek finantzatzeko, Bizkai-ko Foru Aldundiaren diru-laguntza bat dago, eta Eusko Jaurlaritza be eskatu joko laguntza.





GURE ERREKAK BARRITUZ HERRIAREN ONGIZATERAKO

Erreka eta ubideen kudeaketa Foruko Udalaren lehentasunen artean dago; izan be, Landaberde eta Baldatika erreken ur-goraldiek edo OKAren itsasadarragaz bat egiteak arazo larriak sortu deutsez inguruan bizi diran forutarrei. Bestalde, garbitasunak eta mantenimentuak herriko aberastasun hidrikoari balioa emoten deutso, udalerriri ingurumen-balio ikaragarria emoten deusolako, herritarren ongizatea ekarriz. Izandako uholdeak eta uriol barrien arriskuen ondorioz, udalak udalaz gaindiko erakunde eskudunen inplikazioa eskatu dau, ubideen ertzak egokitzeko eta zubi barriak eraikitzeko, pairatzen izan diran egoerak gainditzeko. Eskaera horri Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak erantzun deutse. Gainera, etorkizunera begira, Udalak lankidetzaz hitzarmena sinatu dau Foruko jabari publiko hidraulikoaren ubide eta ur-bazterretan elkarregaz esku hartzeko eta babesteko. Lurralde ingurumenaren ikuspegitik zaintzea, udalerraren garapen jasangarrirako egoera ezin hobean egotea, Foruko Udalaren estrategiaren funtsezko pausua da. Estrategia horren lehentasuneko helburuak dira natura-ondarea eta kultura-ondarea lehengoratzeko eta babesteko, nortasuna sendotzeko, herriaren bizi-kalitatea hobetzeko, biztanleen ongizatea bermatzeko eta erakargarria izateko, belaunaldi barriek Forun geratu eta euren bizitzak bertan eraiki daiezan.



SUSTRAI HANDIKO ESKOLA TXIKIA

Montorre Eskolak, Gautegiz Arteagako eskola publikoak, toldo sistema bat izango dau datorren ikasturterako, aisialdirako eremu estalia handitzeko. Udalak jarri dau, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza baten laguntzaz. Herriko eskola etorkizunerako oinarriko euskarria dala uste dau Gautegiz Arteagako Udalak baita kohesino soziala eta kulturalarako be, eta horregatik emoten deutso laguntza Motorre Eskolari, eskura daukozen baliabideak erabilia. Helburua da prestakuntzaren kalitatea eta ikasleen ongizatea bermatzea, eta, haurren bizikidetzaren eta euren familien arteko harremanaren bidez, loturak sortzea eta bizitza soziokulturalaren garapena eraikitzea, nortasunean, errotzean eta herritarra izatearen sentimenduan oinarrituta. Ikasle kopuru txikiko ikasgelak dira, banakako arreta eskaintzen dauen irakaskuntza ahalbidetuz, bai eta maisu-maistrek herriko haurrez eta inguruko beste herri txikiakoez harreman maitekorragoa izatea be. Irakaskuntzaren kalidadeaz gain, ondo hornitutako ikasgelak eta ondo egokitutako jolaslekua izatea geure seme-alabak eskolaratzeko orduan baloratzen dogun faktorea da. Horregatik, ikasturte bakoitzean Gautegiz Arteagako Udalak, ahal dauen neurrian, hobekuntzak egiten dauz, material didaktikoagaz diruz laguntzen dau edota Montorre Eskolako kultur ekimenak babesten dauz.



BAKEAREN ALDEKO KONPROMISOAK GERNIKA-LUMO ETA NBE BATU EGITEN DAUZ, GENEVAKO EGOITZAN

Jose Mari Gorroño Gernika Lumoko alkatea Nazio Batuen Erakundearen egoitzan izan da oraintsu, Genevan, Bakearen Museoa Fundazioaren izenean *"Paloma ensangrentada"* artelana entregatu eta NBEren egoitza honetan ikusgai jartzeko laga dabe, 10 urtez, eta epe hau luzatu ahal izango da.

Sofia Gandarias margolari gernikarraren lana, egilearen *Gernika* serieko bost zirriborroetako lehena da. Bertan, 1937ko apirilaren 26ko bonbardaketak eragindako suntsipena interpretatzen dau. Lan honen barne *Gernika* izeneko formatu handiko triptikoa be dago, 1999an Gernika-Lumoko Bakearen Museoa Fundazioari dohaintzan emon eutsuna.

Koadroa lagatzeko ekitaldian, Enrique Baron Europako Parlamentuko presidente ohiak, artistaren alargunak, margolana *"bakearen aldeko eta gerraren aurkako mezu unibertsala"* dala azpimarratu eban.

Ekitaldian parte hartu ebenen artean Francisco Rojas egoan, Costa Ricako Bakearen Unibertsitateko (UPAZ) errektorea, eta Gernika-Lumoko alkateak beragaz batzar bat egin eban. Bertan, Kostaldeko Unibertsitateko errektoreak proposatu eutsun Gernika-Lumon Bakeagaz eta Giza Eskubideekaz lotutako beken eta graduondoko ikastaroen prestakuntza-programa bat eskaintzea. Lankidetzaz-ildo honek Gernika-Lumo bakearen aldeko kulturagaz eta ikasketekaz lotutako jardueretan nazioarteko erreferentzia lez zabaldu eta finkatuko dauen aukera ekarriko dau.



IBARRANGELUK MINBIZIAREN AURKAKO BORROKAGAZ BAT EGIN DAU

Minbiziaren aurkako ikerketa funtsezkoa da etxe gehienetan eragina daukon gaixotasun honegaz amaitzeko. Horregatik, Ibarrangeluko Udalak ekimen solidario baten bidez bat egin dau bataila honegaz. Margolanen enkante-erakusketa bat egin da herrian, Mari Carmen Zubieta ibarrangelutarraren ondare artistiko-solidario baliotsuagaz. Artelanak Kultur Etxean dagoz ikusgai, interesa daukeen guztiak enkantean parte har daiezan eta minbiziaren aurkako ikerketan eta borrokan lagun daiezan. Lortzen den diru-bilketa AECC-Bizkaia Bizkaiko Minbiziaren aurkako Elkarteari emongo jako. Eskaintzak irailaren 5era arte egin daitekez, eta koadro bakoitzak irteerako gutxieneko balioa izango dau.

Itsu-itsuan egindako enkante honetan, parte-hartzaile bakoitzak bere konpromisoa eta alkartasuna baloratu behar dauz koadroari prezio bat jartzekoan. Ibarrangeluko Udalak bat egin dau Mari Carmen Zubietaren familiak bultzatutako proiektu solidario honegaz, eta konfiantza osoa dauko ibarrangelutar guztien eta Busturialdeko gainerako herritarren espiritu solidarioan. Horrez gain, irailaren 8an, 19:00etan, Kultur Etxean, "Minbiziaren mitoak eta errealitateak: ulertu sendatzeko" hitzaldia emongo da. Arkaitz Carracedo Biozientzietako Ikerketa Kooperatiboko Zentroko (BioGUNE) ikertzailearen eskutik.

GASTRONOMIAK NATURA, ONDARE HISTORIKOA ETA TURISMO AKTIBOA LOTUKO DAUZ


Kortezubiko *Herriko Taberna*k bere erakargarritasun gastronomi-koa, eta herriko, Urdaibaiko eta Laga eta Laidako hondartzetara doan jende ugariaren erakarpen gune izaera berreskuratu gura dauz. Jatetxe-taberna modernoa da, xarma handikoa, orain dala gutxi barriztauta, eta leku ezin hobean dago, landa-giroko plaza zabal eta bitxi batean. Herriko zerbitzu nagusiak, udaletxea, Santiago eliza, frontoia, liburutegi-ludoteka, txokoa eta haur jolasak dagoz inguruan. Gainera, ondoan, parke publiko handi bat dago, errepidetik ikus daitekeena nahiz eta plazatik ez dan ikusten. Faktore hauek, inguru hurbilean dagoen Elizaren eta San Esteban ermitaren interes historikoari eta ondareari eta paduraren eremuaren magnetismoari (Biosferaren Erreserbaren ekosistema) lotuta, ondo egokitutako bideez hornitua, itsasadarrenaren bi ertzak lotzen dabezen pasabide batez, paisaia eder batean, paseo lasaiak emotera gonbidatzen dabe, eta ibilaldi metodikoenaren erritmoa animatzen dabe. Udalak herriaren gune nagusi horretarako daukon estrategia Kortezubiko bizi-laguntzako gune soziokultural lez bultzatzea da, eta, Urdai-bairen esparruan, urte osoan turismo aktibo errespetutsua eta jasangarri baten helmuga lez. Horretarako, bere neurrietako bat *Herriko Taberna* martxan jartzea da. Enkante publikoan esleitu-ko dau, uda amaieran atek zabaltzeko asmoz.



OINEZKOEN PASEALEKU BATEK ELEXALDE ETA MENDATURI GUNE HISTORIKOAK HURRERATUKO DAUZ

Mendatako Udalak ahalegin handia egiten dau herria ikuspegi soziokulturaletik kohesionatzeko. Landa-guneen arteko distantziek, askotan, hirigintza-azpiegitura txikiak hau lortzeko ezinebestekoak bilakatzen dabez; izan be, irisgarritasuna eta hurreratze psikologikoa hobetzen dauz, eta horrek gizarte- eta kultura-harremanak sustatzen laguntzen dau. Elexalde eta Mendaturi, Mendatako kokaleku historikoa, inoiz baino lotuago egongo dira oinezkoentzako pasealeku barri batez. Pasealekua argizatuta eta babestuta egongo da, bedarrezko landare-estalkiagaz eta barandagaz. Ibilbideaz gozatzeko baldintza ezin hobek daukozen gunea da, eta, beraz, bi auzotako eta Mendata osoko bizilagunen bizi-kalitatea hobetuko dau. Bisitari-entzatzat be pizgarria izango da, gero eta gehiagota joaten dira eta herriaz eta eskaintzen dabezen zerbitzuez gozatzera. Paisaia paregabeko landa-gune honetan, Durangaldeko mendietara zabalik dagoen panoramika batez, Oiz mendia buru dala, ia 400 metroko pasealekuak bisitarien etorrera sustatuko dau eta turismoaren sektorea indartzen lagunduko dau. Proiektua 2021. urtean zehar gauzatuko da, aurretik egindako oinezkoentzako lanen jarraipena da eta 89.411,59 euroko inbertsioa dakar. Obrak finantzatzeko 26.000 euroko diru-laguntza kudeatu da Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegitura eta Lurralde Garapen Sailagaz.






BARDINTASUN PLANA, SEGURTASUNERAKO ETA BIZIKIDETZARAKO EKIMENAK

Mundakako Udalak segurtasuna sustatzen dabezen eta era-soak eragozteko zein bardintasuna ezartzeko tresnak emoten dabezen jarduerak antolatzea eta hauetan parte hartzea animatzen daz herritarrak, udalerrian errespetua eta bizikidetzaz bermatzeko. Sexu-erasoak indarkeria fisikotik haratago zelan identifikatu azaltzeko egindako hitzaldiari, herritar guztiei zuzendutako gizarte-jardueren eta parte-hartzearen zeharkako programa gehitu jako. Emakumeen eta Gizonen arteko Udal Bardintasun Planagaz lotutako jardueren artean, Mundakan Emakumeak *BELDUR BARIK*, Bardintasun Batzordeak eta Udalak herriko puntu baltzak identifikatzeko helburua ezarri dabe, hau da, argi faltagatik, irteera faltagatik eta abarregatik arriskutsuak izan daitekezenak. Parte hartu gura daben herritar guztiek udala.mundaka@bizkaia.org helbidera mezu bat bidali daikeze eta zuzenean, abuztuaren 7an, lekuan bertan atzemandako puntu guztiak ikusteko gura daben guztiei zabalik dagoen batzarrean. Pertsonen segurtasunaren esparruan, kale-argiak ezartzeari lotutako garatzen ari dan politikak eragina dauko, guztiak led motakoak eta energetikoki eraginkorrak. Udal Bardintasun Planak egunerokotasunerako aholku praktikoak eskaintzen dabezen bestelako ekimenetan be eragiten dauko; adibidez, umetxoak eramateko bandolerak zelan lotzen diran ikasi gura daben gurasoei zuzendutako tailerra eta gai honegaz lotutako beste aholku batzuk be.

UDAKO BISITA GIDATUAK VISITAS GUIADAS DE VERANO



AURRETIZKO ERRESERBA
RESERVA PREVIA

634 243 762
www.visiturdaibai.com



Biotalde

SEGURIDAD ALIMENTARIA
SALUD AMBIENTAL
MICROBIOLOGÍA BIOSANITARIA

Nuestros servicios:
LABORATORIO
FORMACIÓN Y
CONSULTORÍA

Conocimiento, tecnología, servicio

Planes de prevención
frente a la Covid-19



Pol.San Isidro II
Idorsolo, 15- Dpto.3.2
48.160 Derio (Bizkaia)
944 566 589
info@biotalde.com
www.biotalde.com



Sociedad Coop. Agrícola Ganadera
Abeltzain eta Nekazal Kooperatiba Elkartea

Bekoibarra, 25pab. 8-14 Edificio Sollube
48300 Gernika-Lumo
Tel.94 625 03 20 / Fax 94 625 68 71
kooperatibasanisidrogernika@gmail.com

www.kooperatibasanisidrogernika.com



Torrealday

TU SOCIO ESTRATÉGICO PARA TU SALUD FINANCIERA

ASESORÍA FISCAL, LABORAL Y CONTABLE

www.torrealday.es • 94 627 00 36

CHARCUTERÍA
GOURMET

PEPI

La Charcutería Pepi ofrece todo tipo de embutidos de calidad y una amplia variedad de productos delicatessen.

Gernikako plaza,7
48300 Gernika-Lumo
608 00 14 28



Urdaibai

ORAIN 2.300 URTE
HACE 2.300 AÑOS

SARRERA DQAN
ENTRADA GRATUITA



arrolagune

Zabalik/Abierto
abuztua / agosto

1 IGANDEA DOMINGO
7 LARUNBATA SÁBADO
15 IGANDEA DOMINGO
21 LARUNBATA SÁBADO
29 IGANDEA DOMINGO

ORDUTEGIA/ HORARIO
10:00 - 14:00
Loiola Auzoa 4,
48383 Arratzu (Bizkaia)
Tel.: 634 243 762
arrolagune@visiturdaibai.com
www.visiturdaibai.com



EUSKAL SOUVENIRS



Andra Mari kalea, z/g
48300 Gernika-Lumo (Bizkaia)
94 625 19 30
www.euskalsouvenirs.com



@euskalsouvenirs



ARRIBALTZA
KAFETEGIA

Barrenkalea, 6
946 466 084

ARRIZA
KAFETEGIA

Artekalea
944 650 698

48300 Gernika-Lumo



jasangarritasunagaz bati!

Busturialdeko
mankomunitatea

busturialdekomankomunitatea@bizkaia.org
94 625 68 84 / 94 625 47 22





GERNIKAKO BATZAR-ETXEA

BATZAR-ARETOA

Bertan egiten dira Bizkaiko Batzar Nagusien Osoko Bilkurak, eta eliza-parlamentutzat hartzen da. Oraindik be, Batzar Aretoan, inguruan egoan jatorrizko ermitako aldarea eta ur bedeinkaturako harriak kontserbatzen dira. Hemen Foruak zin egiteko ekitaldiak egiten ziran. Eta begirada altxatzen badozu, galeria piktoriko garrantzitsu bat ikusiko dozu, Bizkaiko Jaunen erretratuekaz.



LEIARPEKO ARETOA

Bizkaiko historiari eskainitako museoa da, eta nabarmentzekoa da bere estalkia, sinbolismoz betetako irudiekaz diseinatutako beirate handia. Erakusketan honakoak aurkitzen dira: Aldun Nagusien agente-makilak, Batzar Nagusien bozketan erabilitako zidarrezko bolatxuak, Eleizateetako ordezkarien agintaritzaren adierazgarri ziran agintari-makilak, edo J.M. Iparragirrerren gitarra, "Gernikako Arbola" ren konpositorearena, hain zuzen be.

GERNIKAKO ARBOLA ETA HARETX ZAHARRA

2015ean landatutako kimu batek jarraipena emoten deutso leinuari. Euskal herritarren sinbolorik unibertsalena da, Lehendakariak edo Ahalduen Nagusiak kargua hartu eta zin egiten daben lekua. Arbolaren ondoan oroitari baten jasota dagoz Jose Antonio Agirre Lehenengo Lehendakariak zina egiteko esandako berbak 1936an. Batzarretxearen bedargunean *Haretx Zaharra* deitutakoaren enborra dago. Ez da lehenengo Gernikako Arbolearena, baina bai gaur egunera arte heldu jakun ondarrik zaharrena.

Euskadiko Top 10aren parte da, Bizkaiko baliabide bisitatuenetako bat da eta euskal herritar guztion ondare historiko eta kultural baliotsua. Gernikako Juntetxea barrutik itxita egon da ia urte eta erdiz, uztailaren 19ra arte, pandemiaren ondorioz; izan be, jende guztiaren segurtasuna eta osasuna bermatzeko neurri barriekaz zabaldu dauz ateak. Covid kontrako neurriek Juntetxearen irekiera markatzen dabe, baina bere garrantzia eta interesa bere horretan mantentzen dira.

Gernikako Batzar-etxearen esparruan sartzea espazioa XIV. mendetik hona euren herrien ordezkari lez joaten zirenekaz partekatzea da, hau da, Bizkaiko jaunekaz espazioa partekatzea. Europako parlamenturik zaharrenetakoa da eta euskal tradizioen jarraipena sinbolizatzen dau. Izan be, ba-

tzar-etxeak ez dau bere funtzioa galdu, eta, gainera, jarduera betean jarraitzen dau. Bere sinbolismoagatik, bere garrantzi historiko, kultural eta politikoagatik, urtez urte Bizkaiko baliabide turistiko bisitatuenetako bat da, eta Bilbo, Donostia, Gasteiz, Urdaibai, Guardia, Bizkaia Zubia, Gaztelugatxeko San Joan, Loiolako Santutegia eta Cristobal Balenciaga Museogaz batera, Euskadi bisitatzeko ezinbestekoak diren Top 10ekoetako bat da.

2019an zehar, mundu osoko 162.000 pertsona baino gehiago iritsi ziran Gernika-Lumora Bizkaiko Batzar Nagusien egoitza ezagutzera, hau da, 2018an baino % 7,2 gehiago. Zenbaki hauek Juntetxea erreferentzia turistiko lez finkatzen dabe. Covid-19agatik 2020ko martxoan itxi zan erabat, eta urte horretako udan eraikina inguratzen dauen lorategira bisitak baino ez ziran zabaldu. Orain, barriz zabalik dago esparru osoa, baina egoera barrira egokituta.

Uztailaren 19tik aurrera, sarrera digitala atera behar da, doan, eta bisitaren eguna eta ordua adierazi. Sartzeko sistema elektroniko barri honek, denbora (gehienez 45 minutu) eta sartzan diren pertsonak (22 ordu bakoitzeko) kontrolatzen dauz. Gainera, norabide bakarreko ibilbidea da, eta, beraz, ikusten dogunari adi egon behar dogu, ezin izango dogulako atzera egin. Sarrerako tiketa Batzar Nagusien webgunean (<https://jggbizkaia.eus/eu/gernika/eskatu-hitzordua>) edo foru-eraikinaren sarreran bertan dagoen totem batean eskura daiteke.

Zin-Haritza Bizkaiko Jaurerriko lehen Batzarrak hartzen ebazan, foruen bidez gobernatzen ziranak. Arau hoiiek, gaur egungo bizitzara egokituak, euskaldunon bizitza zuzentzen jarraitzen dabe. Denboran zehar mantendu dira, Batzar-Etxearen egungo eraikina bezala, 1826an Santa Maria ermita zaharraren gainean eraikia, 1937ko bonbardaketaren ondoren zutunik iraun ebana. Gernikako Juntetxea eta Zin-Haritza bisitatzeak Euskadiko ikurrik unibertsalenetako bat ezagutzea, euskal historia politiko berezian murgiltzea eta multzo arkitektoniko bikainaz gozatzea da. **UM**



Bisita turistikoa Gernikako Arbolara.

Ana Maria
ZUBIAGA



"Zientziak aurrera egiteko balio izan daben nire karreraren egindako aurkikuntza txikiek eta ikertzaile asko hezi izanak pozez betetzen naute"

Ausarta eta erresilientea. Emakume forutar honen izaera deskribatzen dabe berba bi hauek, nekazal mundutik zientziaren mundura jauzi egin ebana. Ana Mari Zubiagak hogeita hamar urte baino gehiagoko ibilbide luzea egin dau ikertzaile lez. Bere ahaleginari eta dedikazioari esker, Euskadi eta euskal emakumeak ikerketa zientifikoaren mapan kokatzen lagundu dau.

ANA MARIA ZUBIAGA

ZIENTZIALARI FORUTARRA

Genetika arloko katedraduna.

Ikerketa-esparrua:

minbiziaren biologia eta genetika.

Zer oroitzapen dozu Foruaz?

Oroitzapen maitagarriak. Nekazal giroan hazi nintzan, giro euskaldun baten. Haur guztiak, baserrietakoak eta adin desberdinetakoak, kalean elkarregaz jolasten ginan, geure araukaz. Libre, gure gurasoen zaintza barik, geure arazoak kudeatzen genduzan. Horrek niri independentzia emon eustan. Bestalde, baserrian denek lan egin behar gendun txikitatik gurasoei laguntzen. Ahaleginaren eta lanaren balioa be garrantzitsua izan zan niretzat.

Zure haurtzaroak eraginik izan al dau zure karreran?

Foruko eskola auzo eskola tipikoa zan. 5 urtetik 14 urtera gela berean. Maistra izan zan nire gurasoei esan eutsezana, iruditzen zitzaie ikasketa gehiago emoten ahalegindu behar ebeela, eta Karmelitasera joan nintzan, gero institutura, eta 17 urtegez unibertsitatera joan nintzan ikastera. Biologiako karrera aukeratu neban, hasieratik argi ez nuen arren. Niri gauza asko gustatzen jataz. Egia da lurrarekiko kontaktuak asko baloratzen laguntzen deusula, eta Forun txirritxirrin bila jolasten ginan, auzokoen fruta-arbola guztiak ezagutzen genduzan, txorien habien bila ateratzen ginan... naturarekiko kontaktu estua zan. Nik uste dot betidanik izan dodan naturarekiko maitasun hori dala Biologia ikasteko arrazoietakoa bat.

Zelakoa izan da zeure jaioterriatik izen handiko euskal zientzialarietako bat izaterainoko bidea?

Zorionez, gurasoek konfiantza osoa izan eben nigan biologia ikasi gura nebala esan neutsezanean. Neure ustez, barne-indarra eta nortasunean erresilientzia eta pazientzia bezalako ezaugarriak izan behar dira, maratoni bat dalako, ez direlako 100 metro lauak. Eta buruargitasun apur bat euki behar da, baina ez da funtsezkoa herriko azkarrena izatea. Zortea kontuan hartzen da, baina, batez be, banakako lan asko dago, eta garrantzitsua da lankideek elkarlanean aritzea. Funtsezkoena lan on bat egitea eta perfekzioa bilatzen saiatzea da. Oso aristoteliarra naz hone-tan.

Kanpora be joan zinan formakuntza egitera...

Horrela izan behar da. Nik irakasle plaza bat neukan EHUn, eta utzi egin neban, erabaki nebalako punta-puntako zientzia egiten zan ikerketa-zentro batean bizi-esperientzia behar nebala, eta Estatu Batuetara joan nintzan. Oso erabaki ausarta izan zan, eta ondo atera zan. Geure ikasketetan, tesia amaitu ondoren ikasleek dokto-retza ondoko prestakuntza beste erakunde batean egitea sustatzen da, ahal dala atzerriko erakunde batean. Egia da, halaber, gaur egun Espainiako Estatuan punta-puntako ikerketa-zentroak dagozela, hala nola Madrilgo Ikerketa Onkologikoen Zentroa, Bartzelonako Erregulazio Genomikoko Zentroa edo hemen bertan dagoen Biogunea. Baina erosotasun-eremutik atera eta moldatzen ikasi behar da. Hau zurea ez dan herrialde batera joaten zarenean lortzen da. Bizipen hoiek guztiak lagungarri izango jatzuz ikertzaile lez.

Zientzialarien ze deslokalizazio maila dogu Euskadin?

Deslokalizazioa gertatzen da, jende askok alde egiten dau eta ezin da bueltatu, nahiz eta Eusko Jauriaritzak ahalegin izugarria egin dauen zientzia babesteko. Itzulera sustatzeko Ikerbasque' figura dauko. Dokto-retza ondoko bekak, bi urte atzerrian eta bat hemengo laborategi batean egiten dira. Euskadin I+G+b arloan erabiltzen dan BPGren ehunekoa Europako batez bestekotik oso gertu egoan, Espainia ez da inoiz egon. Baina azken urteotan, finantza-krisiaren ondorioz, Euskadin be behera egin dau. Finantza-krisiak eragin ikaragarria izan eban gudan. Krisi ekonomikoa jasan eben beste herrialde batzuetan be gehiago babestu eben zientzia hemen baino. Baina bada fenomeno bat orain lehen baino gehiago gertatzen ari dana eta asko kezkatzen nauena: karrera zientifikoa bertan behera uztea. Ikertzaileek tesia egiten dabe, baita dokto-retza ondokoa be, eta gero ikusten dabe zientzialariek gaizki ordaindutako eta oso ezegonkorra diran lanak daukezela, beti beken zain. Normalean 35 edo 40 urtera arte mantentzen dan ezegonkortasuna, zure lanpostua egonkortzen eta aldi berean familia bat sortzen saiatzen zaren aldia. Horren >>> guztiaren ondorioz, karrera zientifikoa

aukeratu daben askok karrera uztea erabakitzen dabe.

Zelan ebitau daiteke arazo hori?

Beste herrialde batzuetan dagozen figurak falta jakuz, hala nola *staff científico* edo plantillako zientifikoa, Ingalaterran, Alemanian edo Frantzian dagoena. Oso figura garrantzitsua da, lan-kontratu bat dalako. Aspalditik ari gara ministro guztiei eskatzen. Horretan, emakumeok gehiago dogu galtzeko, kontziliazioa oraindik be zailagoa baita emakumeentzat.

Zure kasuan, ausardiaz zabaldu dozu bidea.

Ez neukan argi bueltatu gura nabenik. Han ezkondu nintzan eta baneukan alaba bat. Baina une batetik aurrera, doktoretza ondoko ikasketak AEBetan egiten ari nintzala, irakasle plaza bilatzen hasi nintzan. 1995ean itzultzea erabaki gendun, iker-tzaile nagusi lez etorri nintzan eta urte berean irakasle plaza bat lortu neban. Erronka ia hutsik egoan laborategi batean hastea izan zan, ia ez zan ikerketarik egiten. Atzerrian ikasitakoa hemen ezartzeko aukera ona izango zala pentsatu neban, biozientzia eta biomedikuntza oso gutxi garatuta egoalako. Masa kritikoa eraikitzen hasteko modu on bat zala ikusi neban, hori da behar dana. Hori eraikitzen parte hartu izana pozgarria da niretzat.

Zelan sortu dozu zeure ikerketa-taldea?

Tesia egiten ari ziran bi ikasleekaz hasi nintzan eta apurka-apurka taldea zabal-tzen joan da. Irakasle gazte batzuek plaza lortu eben eta nigaz lan egitera etorri ziran. Orain hiru irakasle gara. Ikerbasque ikertzaile bat, doktoretza ondoko ikasle bat (tesiaren eta ikerketa-karreraren arteko prestakuntza-aldia), lau tesi-ikasle eta laborategiko teknikari bat.

Zer baloratzen dozu gehiago zure karre-

raz?

Gurea bezalako lan batean, emaitzak negatiboak izaten dira normalean, emaitza positibo bat lortzen dozunean, aurkikuntza bat lortzen dozunean, gogobetetze eta gogo-maila paregabeak dira. Zientziak aurrera egiteko balio daikeezan eta balio daben aurkikuntza txikiak lortu izana, nahiz eta mikrometrikoak izan, poz handia emoten dau. Eta ikasleak trebatu izanak, orain euren ikerketa-karrerak daukeenak, eta lan horrek, gogorra izanik be, bere fruituak izan dauzela ikusteak, poz handia emoten deust.

Zergatik aukeratu zenduan genetika espezialitatea?

Karrera zientifikoa diziplina anitzekoa da. Genetikako irakasle katedraduna naz. Baina nik egiten dodan ikerketak genetika, biokimika, biologia zelularra ikutzen dauz, galderei erantzuteko behar dan guztia, nik egiten dodazen galderak edo mundu zientifikoak botatzen dauzenak. Doktoretza ondoko ikasketak egiten ari nintzan, minbiziaren garapen tumoralaria lotutako geneak identifikatzeko *booma* izan zan.

Ikusten hasi ginan geneak ezagutu geinkezela, baita eraldatuta dagozen mekanismoak be, eta ezagutza horregaz terapiak bilatu geinkezela. Arlo hori interesatu jatan eta arlo horretan zentratu nintzan. Gaur egun, bizitzen ari garenagatik, pentsa daiket ikasleek interes handia daukeela birologian.

Zein aurkikuntzaz sentitzen zara bereziki pozik?

Ezagutzen ez genduan onkogen bat identifikatu genduan. Aztertzeke, gene hori ezabatutako sagu bat sortu genduan. Aztertu eta ikusi genduan ezaugarri autoimmuneak eta tumoreak garatzen ebazala. Hortik ondorioztatu genduan gene horren



* Ikerbasque Research Fellowsak doktoretza ondoko 3 eta 10 urte bitarteko ibilbidea eta nazioarteko esperientzia daukeen ikertzaileak dira. Batzorde Zientifiko batek aukeratzen dauz nazioarteko deialdien bidez, eta 5 urtez kontratatzen dira beren karrera zientifikoak Euskadiko ikerketa-erakundeetan garatzeko.





Deslokalizazioa gertatzen da, nahiz eta Eusko Jaurlaritzak Ikerbasque gaz zientzialarien itzulera sustatzen dauen. Baina asko kezkatzen nau karrera zientifikoa bertan behera uztearen fenomeno.*

funtzioa tumoreen garapena blokeatzea zala, hasiera batean espero zanaren kontrakoa zan ondorioa. Tumorea ez dan testuinguru batean, handitune-egoerak eta tumorea geldiarazten dauz, eta tumore-egoera batean dagoenean, tumorea sustatzen dau. Horrelako aurkikuntza batzuk oso pozgarriak dira.

Zelakoa da EHUn egiten dozuen lanaren eta kanpoko lanaren arteko erlazioa?

Oso aberasgarria da. Une honetan, ahozko inplantologian lan egiten dauen enpresa bategaz lan egiten dogu. Hezu-

rra eta beste ehun batzuk leheneratzeko metodologiak garatzen ari dira, eta prozesu zelularren eta molekularren oinarritzko ezagutza interesatzen jake. Oso harreman emankorra eta oso ona daukagu. AEBetako beste ikertzaile batzuek bezala kolaborazioak doguz, hoietako bat Chronen gaixotasunari buruzkoa.

Zientzialari lez egin dozun ibilbideagaz, zer lortu gura dozu oraindik? Zein da zeure hurrengo proiektua?

62 urte beteko dodaz. Karrera zientifikoak ez dau adin-mugarik, baina bai uniber-

tsitateak, 70 urte bete arte lan egiten uzten dauelako. Hasi dodan ikerketa taldea sendotzea gura dot. Gazteak dira, gehienak 35 eta 40 urte bitartekoak, eta finantzeko bidean dagoz. Eta talentu gehiago erakarri gura dot be, horrek masa kritiko gehiago sortzen lagun daian. Oro har, estatuko unibertsitateak hiltzorian gagoz. Ez bakarrik finantza-krisiagaz finantzaketa asko jaitsi dalako, aldi berean Boloniako prozesua eta irakaskuntza-metodologia barriak egokitu behar izan doguz, eta >>> hori guztia finantzazioa eta langileak han-

GARRAIOA, BILTEGIRATZE, BANAKETA...

TXAPORTA INDUSTRIALDEA, 2-1
48300 GERNIKA – LUMO (Bizkaia)

Tel. 94 625 03 85
Tel. 94 625 75 40
e-mail: lgk@lgk.es

Arrien Optika

Urkieta k. 10
Tel./Fax: 946 25 63 63
Email: arrienoptika@yahoo.es



*Hasi dodan
ikerketa taldea
sendotzea gura
dot eta talentu
gehiago erakarri
gura dot be, horrek
masa kritiko
gehiago sortzen
lagun daian.*

ditu barik, baita alderantziz be. Boloniako metodologia barria askoz be positiboagoa izango zan beharrezko baliabideak izanda. Ikasleek lehen ez eukazan zeharkako gaitasun asko irabazi dabez. Bitartean zientziak aurrera egin dau, ikerketa zentroak indartu egin dira, baina gu ez. Guk ahalegin hori irakaskuntza aplikatzera bideratu behar izan dogu, ezin izan gara zientziara hainbeste bideratu.

Pandemiaren ondoren gizartea zientziaren balioa birplanteatzen ari dala uste dozu?

Uste dot sozialki balioa emon jakola eta zientziak prestigioa irabazi dauela. Administrazioak gizartean ikusten dogun hori hautematen ez badau be, ziurrenik hemendik aurrera haur gehiago egongo dira ikertzaile izan gura dabenak. Eusko Jaurlearitzaren 2030erako Zientzia eta Tek-

nologia Plan barrian ikusten zan zientzian egindako inbertsioaren ehuneko txikituz joan zala, eta orain ahalegina egingo zala barriro handitzeko eta, gutxienez, Europa mailan egoteko edo ahal bada apur bat gehiago.

Emakume zientzialari zaren aldetik, bidea ez dala erraza izan imajinatzen dogu. Ba al dago hain desiratua dan parrekotasuna zientzian?

Txiki-txikitatik daramagu arrasto moduko bat. Diskriminazioa oso fina da. Zaila da ikustea. Are gehiago, emakumeei zientzia ez bajaku gizonei bezainbeste interesatzen arrazoa da, neska bat horretan interesa agertzen hasten danean be, ez dauela ez gurasoen, ez eskolaren, ez mutil batek izan daikeezan babesik jasotzen. Eta babes hori, haiek animatzea da, beste barik. Neskeei modagaz zerikusia



EMBASSY

Maximo Aguirre, 11
48011 Bilbao

1000 koloreau
Taberna - Jatetxe

Plaza San Juan Ibarra, 5/A
48300 Gernika-Lumo
94 625 76 19 / 628 548 572



www.myembassybilbao.com

Bespoke&Urban

*Uste dot
pandemiagaz
zientziak ospea
irabazi dauela,
nahiz eta
administratziotik ez
dan ikusten.
Ziurrenik, hemendik
aurrera ikertzaile
izan gura daben haur
gehiago egongo dira.*



daukon zerbait interesatzen bajake animatu egiten jake; beste diziplina teknikoago batzuetan, barriz, mutileei animatzen doguz, neskak gutxiago animatzen doguz eta konturatu barik egiten dogu. Euri fin honek bere eragina izaten dau azkenean. Geure burua gutxiesten dogu, autoestimu txikiagoa izaten dogu. Ni autoestimu faltaren aurka borrokatzen naz arrazionalki. Emakumeok, oro har, motxila horregaz gatoz.

Karrera zientifikoan genero-bardintasuna lortzeko neurriak hartzen ari direla uste dozu?

Unibertsitatetik hartu dira ekimen batzuk, diskriminazio positiboa, ona iruditzen jat. Hala nola batzordeek paritariorak izan behar dabela. Apurka-apurka, horrek eragina izaten dau; izan be, bestela, hau-tagaitzak aurkezterakoan, ia automatikoki

gizonengan pentsatzen genduan, eta ez genduan emakumeetan pentsatzen, balio bardinekoak izanda, niri be gertatzen jatan. Balioan jartzea, saritzea... da orain bururatzen jakun modu bakarra emakumeari agerikotasuna emoteko. Ekimen hoiek laguntzen ari dira.

Foruk Emakumearen Egunean onespena emon eutsun...

iAy! ...Ze ilusioa! Ez neban espero. Zure herrian, jendeak badaki nor zaren. Forun betidanik Biondoa baserriagaz lotzen naue. Zu beste modu batera identifikatzea zaila da eta sari hori ematea, bihotzera iritsi jatan!

Zer esango zeunskiozu handitan zientzian jardun gura dauen geure herrietako batean gaur jolasten dauen neskatoki bati ?

Amorerik ez emoteko. Baina gauza garrantzitsu bat da bere balioa baloratzen dakiten lagunak aurkitzea. Izan be, emakume askok merezi ez dabezen mutil-lagunak aurkitzen dabez, euren neska-lagunak egiten dauen lana baloratzen ez dabenak. Eta hori da, neurri batean, emakumeek karrera zientifikoa uzteko arrazoietako bat. Nire kasuan eta ni bezalako beste emakume askotan, zientzian jarraitzen dugu gure senarrek onartzen ebeelako. Maitasunean, arrazoiketa apur bat mantendu guran, ondo aukeratu behar da. Bizitza partekatzen dozun pertsonaren laguntza funtsezkoa izan daiteke garatzeko. Eta zortea be bada.

Oraintsu, Elhuyar Fundazioak emondako 2020ko Merezimenduaren Saria jaso dozu, euskararen normalizazioan eta zientziaren dibulgazioan egindako ekarpenagatik. Hemen be bidea zabaltzen...

Balio handia emoten deusat euskarari. Oso pro-euskalduna naz. Euskarazko zientzia eta euskarazko klaseak sustatzen saiatzen naz. Tesia egiteko hasieran lortu neban beka ikasgaiaren materialak euskaraz lantzeko izan zan. Goyo Monreal errektore zala, beka atera ebazan euskara ezarri eta normalizatzeko. Horietako bat lortu neban eta horrela hasi nintzan. Lehen gaizki ikusia egoan euskara jakitea, baserriarraren sinonimoa zan. Eta nik baserriar konplexua izaten jarraitzen dot, hau ezin izan dot kendu. Gaztetan Gernikan diskriminatuta nengoan baserrikoa izateagatik, eta baserriagaz, behiekaz, euskaragaz eta beste guztiagaz zerikusia izandako guztia kentzen eta nire gaztelania lantzen saiatu nintzan. Gero gauzak asko aldatu ziran, baina garai batean ez neban batera berba egiten euskaraz, eta nire nebak gauza bera. Gero Franco hil zan eta gauzak aldatu egin ziran. Begiak zabaldu eustazan barriro. Izan be, gogoan dot behin neure nebari esan neutsola: *ez dakit konturatu zaren, inposatu deuskuelako ari garela gaztelaniaz*. Arrazionalki euskaraz berba egitea erabaki genduan. Gaur, noski, klaseak euskaraz eta ingelesez emoten dodaz.

UM

E
EGUREN

OPTIKA

ENTZUMEN ZENTROA



GERNIKA-LUMO
Domingo Bernaola, 1
94 625 03 23 / 94 625 04 51

MUNGIA
Aita Elorriaga, 20
946156636




AUZOKOA
TABERNA

Ostadar
zaporetzua

Pablo Picasso Kalea, 9
Gernika-Lumo
Tel. 94 625 16 66





PROBALEKUAK

indarra,
tradizioa
eta lehia-
ispiritua

Zenbait herritan, batez be landa ingurukoak eta barnealdekoetan, lurlean, kirolagaz lotutako azpiegiturak aurkitzen doguz, baseritik sortu ziran jolas-jarduerakaz lotuta. Probalekuak dira. Harribiletako plazatxoak dira eta bertan idi probak, gizon probak, asto probak edota zaldi-probak egiten dira. Busturialdea-Urdaibain, Gernika-Lumo, Mendata, Muxika, Morga, Nabarniz, Foru, Busturia eta Bermeo bezalako herriek plaza hauek mantentzen dabez oraindik.

Probalekuen jatorria landa-tradizioan dago eta horixe aurkitzen da hauen balio etnografikoa; zehazki, baserriko lanean, baina jolas bihurtuta, kirol-jardueran bilakatuta. Baserritarrak elkarren artean lehiatzen ziran harriak altxatuz edo ,harri astunak izanezker, arrastaka eramanez,

batzuetan euren kabuz eta beste batzuetan animalien indarrez. Horrela sortu ziran Idi-probak edo idi-demak, gizon-probak, asto-probak eta zaldi-probak. Kirol honen jatorrian euskaldunon lehia-espiritua be funtsezkoa da, izan be, indarra, tradizioa eta posturak herri kirolen funtsezko hiru elementuak dira.

Harri-proben kirolak aurrera egin eban probalekuen sorreragaz, harribilez osatutako plaza angeluzuzena. Adituen arabera, plaza onenak harginek egindakoak dira, errekarriaz eginda. Harri hauek gogor finkatuta dagoz harezko geruza baten gainean, eta luzera desbardinekoak badira be, gehienak 28 metrokoak dira. Hemen, parte-hartzaileek tamaina handiko harri bat arrastau egiten dabe aurrez finkatutako denboraldi batez, eta plazari buelta gehiago emotea lortzen dauenak irabazten dau, hau da, "untze" kopuru handiagoa lortzen dauena. Probaleku tipikoak, zaharragoak, aire zabalean dagoz, baina modernoan aterpean egoten dira, Kortezubini bezala, frontoiaren barruan baitago. Eskualdeko lehen probalekuak Gernika-Lumon, Arrieta (Busturia), Kortezubi eta Mendatan egozan. Gernika-Lumon tradizio handia egoan eta hemen egin ziran Bizkaiko txapelketarik zaharrenak, urriari. Orduan probalekuak Malosten egoan. Eta Mendatan, jatorrizko probalekuak frontoia baino lehenagokoa zan, 1957koa. Mendatiko egungo probalekuak Debako hargin batek egin eban 70. hamarkadan, hondartzako hareaz eta granitoagaz.

Probalekuetan, idi-probak dira nagusi.

Garai batean, idia balio handiko animalia zan baserrietan, gardiak garraiatzeko eta harrobietan lan egiteko erabiltzen zana. Idi- buztarri batek, uztar batek elkartuta, harria arrastaka eramatea da ohikoena, eta "untze" edo "plaza" (probalekuaren



Idi probak Foruko probalekuan.

luzera) gehiago egiten daben buztarriak irabazten dau. Proban zehar, akulariek gidatzen dabez animaliak, horretarako akuluak erabiltzen dabez, animaliak gidatzeko makila, hortik datortze izena. Herri askok harri-probatan erabiltzeko euren harri propioa dauke, "probarri" izenekoa.

Harria angeluzuzena izaten da, zertxobait estuagoa aurreko aldean, bertan katearentzako zulo landu bat dauko. Harriaren pisua desbardina da herriaren arabera, baina 1.500 eta 4.500 kilo artekoa da. Gernika-Lumon 4.500 kiloko harria dago, baina oso gutxitan erabili da. Mendatan 2.500 kiloko erabiltzen da idi probak egiteko, 750 kiloko zaldi probak egiteko eta 550 kiloko asto probak eta gizon probak egiteko.

ANIMALIEN SEGURTASUNA BERMATZEKO ARAUDI EGUNERATUA

Animalien osasuna bermatzeko eta animaliei tratatu egokia emoteko, gaur egun, animaliekaz egiten diran herri kirolek,

idi-probek, kasu baterako, araudi zorrotza dauke. Alde batetik, lehiaketa-araudia dago, animaliak jaso behar daben tratua arautzen dauena, eta, bestetik, Dopinaren Aurkako Euskal Agentziak egiten dauen kontrola, animaliei inolako substantzia dopatzailerik ez emotea bermatzen dauena. Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoa eta Kirolaren Zuzendaritzaren menpeko Dopinaren Aurkako Euskal Agentziak aplikatzen dauen dopinaren aurkako araudia Nazioarteko Hipika Federazioak erabiltzen dauen berbera da. Eta animaliak lehiaketan zehar jasotzen dauen tratuari dagokionez, araudiak honako hau dino bere 9. artikuluan: *"Ganadua ezin izango da zakar jo edo akulatatu. Modu leunean bakarrik jo ahal izango da, epailearen erispideari jarraituaz, eta horrela egiten ez bada, abisua emongo da eta, barriz be errepikatzen bada plazatik kanporatua izango da".* **UM**





Arteaz gozatzeko ez da beti museoetara jo behar. Gero eta herri gehiagok euren kaleetara ataritzen dabez pinakoteka baten egoteko duinak diren artelanak. Bermeon, Nestor Basterretxearen jaioterrian, bere artelanen lagin adierazgarria aurkituko dogu. Eskultore eta margolaria, autodidakta, inkonformista eta euskal kulturagaz konprometitua.



Ezkerrean, "Olatu" eskultura. Eskuman, "Euskal kosmogonia" serieko eskultura.

Nestor Basterretxearen KALE-IBILBIDE ESKULTURALA, PROFETA BERE LURREAN



A rteak hiri paisaia edertzen dau, kulturaz blaitzen gaitu eta begirada arretatsuz kalez kale ibiltzera animatzen gaitu. Ibilbidea Bermeoko Talan hasiko dogu, Bizkaiko Golkoa ikusteko leku pribilegiatuan. Bertan dago Benito Barrueta Asteinza margolari bermeotarraren omeneko monumentua. Eskultura ederra da, egurrezkoa eta zementuzkoa, Basterretxeak (1973) egina, eta ikusizko joko polita egiten dau erdiko zabalduan, eta bertatik Iزارo irla ikusten da. Monumentuaren oinetan, inskripzio bat agertzen da. Lekuko lasaitasunaz eta arbolen itzalpean panoramika ederraz gozatu, Bermeoko alde zaharratik porturako bidea jarraitu aurretik.

Alde zaharrean San Joan portalatik sartuko gara (XIV. mendea), herriko Erdi Aroko harresiak eukazan zazpi sarreretatik zutik geratzen dan bakarra. Metro gutxira, kalean behera, Udaletxeko plaza eta musika-kioskoa aurkituko doguz. Porturantz jarraituko dogu Ertzilla dorretik. XV. mende amaierako Erdi Aroko dorrea, Arrantzaleen Museoa gordetzen dau eta Portu Zahar animatuaren ikuspegiak eskaintzen dauz. Bertan, *Olatu* (2006) eskultura erraldoia nabarmentzen da. Ia zortzi metroko altuera eta 44 tona daukoz, eta erortzeko zorian dagozen hiru olatu uhintsuei forma emoten deutse honek. Corten kaltzaiduz egina dago, egilearen esanetan "nire herriaren izaera bezain gogorra, harrigarria da". Oinarrian, Basterretxeak berba batzuk eskaintzen deutsoz Bermeori: "Bermeo nire herri maitea, zu zara olatu erraldoi baten irudi zoragarria".

Lamera parkera jaitsiko gara. Giroz beteriko gune zugaztsu honetan, zirkuluan bilduta, *Euskal Kosmogonia* (2007) serieko eskulturak aurkituko doguz. Brontzez

egindako 18 lanez osatutako multzoa. Jose Migel Barandiaranek egindako ikerketa mitologikoetan eta Euskal Herriko mitoetan inspiratuta dagoz, kristau zein pagano eraginekoak. Serie honetako jatorrizko lanak Basterretxeak egin ebazan 1972-1973 urteetan, egurrean.

Handik gertu dagoen Erreten Lamera parkean, Frantziskotarren Komentuaren kanpoko hormetan, harriari atxikita, brontzezko hiru erliebe dagoz, *Mamuak* edo *Ilargi Alandrearen Mamuak* izenekoak (2005). Barruan, komentuko klaustroan, brontzezko bost hilarri dagoz (2006), euskal nekropolietako antzinako hilarrietan inspiratuak. Artistak Bermeori egindako dohaintza bat.

Ez da hemen amaitzen Nestor Basterretxearen aztarna artistikoaren ibilbide hau. Hirigunetik kanpo, Bermeoko gune esanguratsuetan, beste bi obraz goza daikegu. Sollube mendiaren magalean, Bermeoko paisaia berdean, *Lurdeia* eskulturaren presentziak naturaren indarrak, eguzkia, lurra, iretargia, ura, haizea, sua ekartzen dauz gogora.

Matxitxakoko Guda bataila odoltsuaren biktimen omenezko eskulturaren amaituko dogu ibilbidea. Itsasoaren aurreko begiratoki batean kokatuta dago, Bermeotik Gaztelugatxerako errepide zaharrean, eta bertatik, 1937ko martxoan, gerra zibilean, izandako itsas borroka historikoaren lekua ikusten da. Borrokaren gordintasunean oinarritutako artelanak, corten kaltzaduz eginiokoak, hondoratutako Nabarra itsasontzia birsortzen dau. Bitxia bada be, 1977an inauguratu zan eta Nestor Basterretxeak be egin eban hormigoizko monolito bat ordezkatu eban eskulturak 2007an. **UM**



Nestor Basterretxea

MARMITAKOA,

itsasoko gisadua



Marmitako tradizionala.

Ba al zenekien?

- Marmitakoa Kantauri Iparralde guztian prestatzen da, Asturiastik Frantziako kostaldera. Asturiasen eta Kantabriari "zurruputun" izenez ezagutzen da.
- Lehen jatarbiak edo gaztainak erabiltzen ziran marmitakoa egiteko, patatak XIX. mendera arte ez ziralako iritsi. Sukaldariak apurtutako edo balio gutxiko arrainak aukeratzen ebazan.

Itsas zabalean, arrantzaleek despentsa mugatua euketuzan, patatak, kipulak, piper txorizeroak, arrainari gehitzen jakozan ohiko osagaiak ziran. Marmitakoaren jatorri apala geure kostaldeari eta hegaluzearen kostaldeari lotuta dago, eta udan bere gorenean dago.

Uda sasoiko tipikoa, marmitakoa udako izarra gastronomietako bat da eta Euskadin gehien errotutako jakietako bat. Bere jatorriak arrantzaleek itsasoan denbora pasatzen eben kostalde luze haietara garamatza, eta itsasontzietan sukaldariek "egoana" prestatzen eben. *"Itsasoan ezin zara tomateak erostera joan, dagoenagaz egiten da jatekoa. Patatek, piper txorizeroak eta kipulak hilabete irauten dabe. Hortik dator marmitakoa".* Urdaibai-ko arrantza-herriek ondo dakite errezeta simple baina zapoetsu honen sekretuak. Jose Iglesias Larrinaga, "Adonekoa", Bermeoko Artza jatetxekoa, erreferentea da marmitakoaz ari garenean. Itsasontzi

ERREZETA

Marmitako tradizionala

OSAGIAK

- Hegaluzea
- Kipula
- Patata ertainak
- Piper txorizeroak
- Gatza
- Oliba-olioa

Komeni da alde zurratik salda bat egitea arrainaren hazurrak eta buruagaz. Jarri kazolan kipula txikituta eta biguntzen jarri. Gehitu patatak hauek apurtuz, kraskatuz. Gehitu piper txorizeroaren mamia, alde zurratik beratuta, nahastu eta gehitu ura edo salda. Irakitera eraman, ondoren sua erdira bajatu eta 25 bat minutuz egosten utzi. Patata egosita dagoenean, sartu hegaluzea takoetan. Amatau sua beroagaz egin dadin. Zerbitzatu baino 10 minutu lehenago utzi pausatzen.

On egin!

bermeotarretan kozineru lez izandako eskarmentuak ospea emon deutso, eta gastronomia lehiaketetan sariak jaso dauz. *"Itsasora joaten hasi nintzanean, 1971n, 20 egunetan itzultzen ez ginan eta izozkailurik ez egoan, oilaskoa izotzetan sartzen zan eta lehenengo bost egunetan prestatzen zan, egoera onean egoan denbora zalako. Gaur egun ezberdina da, ontziak hobeto prestatuta dagozelako".*

Marmitako on baten lehengaia atuna da eta hegaluzearen kostera ekainean hasi eta irailera arte luzatzen da. Hau da marmitakoa jateko garairik onena. Halanda be, itsasoan ez zan egunero marmitakoa jaten, *"Astean behin egiten genduan marmitakoa, baina atuna era ezberdinetan ipintzen zan albardatua, kipulagaz... Arrantzaleei ezin deutsezu egunero gauza bera emon, atuna bai, baina aldatuta".*

Itsasoko gisadu honen izena, itsasontzietan egiten zan kazolatik dator, marmita izenekoa, *"Lehen, itsasontzietara, kozinatzeke kazola handi bat eramaten zan, eta arrantzale bakoitzak bere kazolatxo eramaten eban eta lapiko txiki hoietan zerbitzaten zan. Saltsa berdie, paellie ta ho-*

rrek danak "baltzuen" jaten ziran, kazuela erdian jarri ta handik jan, bakoitzak bere aldetik."

Modu tradizionalen prestatzeko kipula piper txorizeroagaz prijidu behar da, patata bota eta eragin *"patatak kolore nakaratu hartu arte... Gero ura gehitu, baina nik atunaren hondakinekaz egiten dodan salda botatzen dot. Dena aprobetxatzen dot, azala izan ezik, zapora mingotsa emoten dauelako. Egosi patata 18-20 minutuz, sua amatau eta orduan bota atuna. Hiru buelta emon eta kito. Zenbat eta bero handiagoa, orduan eta lehorragoa atuna. Nik egiten dot amumak egiten ebanez".*

Plater erraza da, baina prestatzeko sekretuak be badagoz. Lehengaiak markatzen dau. Artzan prestatzen dan marmitakoaren buru eta arima dan sukaldariak bere sekretua *"produktua, maitasuna jartzea eta gogoa"* direla dino.

Patata gehitzeko moduak be badauko berea: *"Patata apurtu egin behar da beti, kla, kla, kla egin dezala zatitzean. Horrela salda loditzen baita, marmitakoan eta gisadu guztietan".* Misteriozko trikimailu bat dirudien hau patataren berezko egituran

eta ezaugarrietan oinarritzen da. Horrela, patatak saltsa loditzen dauen almidoia askatzen dau. Patata "apurtu", patata zatitzea da, aiztoa kanporantz biratuz, ebaki garbi bat egin beharrea.

Barrikuntza gastronomikoak plater tradizionalen aldaketak sortzera garamatza. Marmitakoaren kasuan, arrantzaleak izan dira aldaerak emoten lehenak. Baloratuenetako bat txipiroien marmitakoa da. *"Marmitako al da izan danagaz, txibixena... gozoena da. Lehenengo txibixia egin, kipuliegaz, itsasoan ez jako botaten ardaurik, hamen herrixen bai, ardaur zuria edo txakolina. Itsasoan ezin jako bota ardaurik ze amarrata zauz... ondo egin txibixe ta bigun dagoeneko, txorixeroa bota gero patatak ta listo".*

Marmitako plater on batek gure osasunean daukozen onurei dagokienez, jakina da hegaluzea, osagai izarra, omega-3n aberatsa dala, proteina, bitamina eta mineralen iturria. Eta atuna bezalako arrainetan kontzentratzen dan merkurioari dagokionez, kontzentrazio hori, neurri handi batean, bere heldutasunaren arabera da, *"Merkurioa elikadura-katean zeharreko arrastoetan agertzen da. Ozeanoan, harra-pari handiak dira, kate honen gailurrean dagoenak, merkurioa pila dezaketanak, disolbaezina baita eta, beraz, ez baita iraziten. Harrapakari handien artean hegala-burra, ezpata-arraina edo marrazoak dagoz. Eta metatzailerik handienak espezie zaharrenak dira, hegala-burra adibidez, adin aurreratuagoetara iristen direnean. Hegaluzearen kasuan, lasai egon gaitzke. Kontsumitzen dogun hegaluzea, geure ontzietan arrantzatzen dana, hegaluze gaztea da eta ez dau merkurio-pilaketa arazorik?"* azaldu dau Josu Santiagok, Aztiko Tunidoen Arrantza Kudeaketako Arloko koordinatzaileak. Hegaluze horri, marmitakoa egiteko, patatak eta piperra gehitzen jakoz, karbohidratoak emoten dabezenak. Plater sendoa, energiak berreskuratzeko eta itsasontzian zereginak egiten jarraitzeko. **UM**

TURISMO JASANGARRIAREN EUROPAKO GUTUNA

Nazioarteko onespena Urdaibairi eta erronka barri bat enpresa turistikoentzat

Urdaibai-Busturialdea da turismo jasangarriaren arloan nazioarteko aitortpena daukon Euskadiko helmuga bakarra. Ziurtapena uztailearen 1ean gauzatu da, naturagune babestua (Urdaibaiko Biosfera Erreserba) Garapen Iraunkorraren Europako Gutunari atxikitzeko ekitaldian (TJEG). Ekitaldi horretan eskualdeko 16 enpresak sinatu eben euren atxikimendua. Geure bizi-espazioaren garapen jasangarria helburu saihestezina da Biosferaren Erreserba lurralde lez eta Garapen Jasangarrirako Helburuekatz (GJH) koherentea dan gizarte lez.

Urdaibai Turismo Jasangarriaren Europako Gutunari atxikitzea mugari eta erronka bat da. Mugarria da garapen jasangarrirako konpromiso formal instituzional bat hartzea turismo-sektorearen eskutik, gizarte osoaren bizitza ekonomiko, sozial eta kulturala barne hartu gura dauena. Gurea bezalako gune babestu batean bizitzeak eta lan egiteak bizimodu arduratsua hartzea dakar, baldintza jakin batzuekiko ekonomia- eta enpresa-jardueren konpromisoagaz lotuta. Kanpora begira diskriminazio positiboa dakarkigun Biosferaren Erreserba etiketa bat duen eta baldintza onetan mantentzen dan lurraldea eta natura-eta kultura- ondarea da kontrapartida. Urdaibaik TJEGren esparruan daukon erronka eragile konpro-

metituei eta gizarteari emondako balio erantsiaren arteko balantzea eskatutako ahalegina baino handiagoa izatea da.

Prozesu honetan azpimarratzekoa da turismoagaz zerikusia daukeen Urdaibaiko enpresen jarrera positiboa eta espiritu ekintzailea; izan be, Covid 19k eragindako osasun-krisiagatik bereziki gogorra eta oso zaila izan dan une honetan, bizirau-pen hutsetik haratago joatearen aldeko apustua egin dabe, kudeaketa-ahaleginak biderkatuz eta itxierek eta mugek murriztutako baliabideak optimizatuz, lurraldearekiko, biztanleriarekiko eta kulturarekiko konpromisoa hobetzeko eta handitzeko.





Urdaibaiko enpresa turistikoak TJEG ziurtagiria jasotzeko ekitaldia.

Lurraldearentzat, administrazioentzat eta enpresentzat erronka barria da lurralde- eta enpresa-bikaintasun hau gura diran merkatuetara iritsiko dan faktore bereizgarri bihurtzea.

Lurraldeagaz inplikatzeko moduak askotarikoak izan daitezke Urdaibain turismoagaz lotutako enpresak bezala, eta TJEGarekiko konpromiso horrek sistematizatu eta antolatu egiten dauz irizpideak, lehenik eta behin gutxienean betekizun komunak ezartzeko eta, ondoren, hoi aplikazio eraginkorra egiaztatzeko tresnak izateko. Prozesu horretan, urrats garrantzitsu bat lankidetzara publiko-privaturako bokazioa da. Gune babestuetan, enpresek beren jarduerak gauzatzeko elkarri eragin behar deuten administrazio-egiturak gainjartzen dira, eta TJEGren helburuetako bat da *"Gutunaren bidez egiaztatutako gune babestuen kudeatzaileen eta turismo-enpresen artean lankidetzara estua sustatzea, elkarrekiko konpromiso sendoetan oinarrituta"*.

Lurraldeko administrazioan, ekonomian eta bizitza soziokulturalean parte hartzen daben alderdi guztien arteko harremanak ulertzeko modu barri hau aberasgarria eta positiboa da, eta elkarregaz hobetzen, dinamizatzen eta zaintzen dan lurraldean sustraitzeko eta kide izateko kultura sortzen lagunduko dau.

Enpresentzat, Turismo Jasangarriaren Europako Gutunari atxikitzea turismo jasangarriaren printzipioak beren jarduerari aplikatzeko, borondatezko konpromisoa da eta ahalegina egiten dabe lurraldearen gaineko eragina minimizatzeke, tokiko biztanleen laguntza eta konplizitatea izateke, gizarte-ingurunearen kultura eta nortasuna sustatzeko eta mantentzeko, ondarea errespetatzeko, tokiko produktua

kontsumitzeko eta jardunbide egokiak ezartzeko, turismo-jarduerak hurbileneke ingurunearen onurarako izan daitezkan, bai ekonomia-, gizarte- eta lan-arloan. Geure eskualdean, TJEGren ekimenari emondako erantzuna oso positiboa izan da. Prozesua garatu dan foroetan egindako bilera guztietan, naturagune babestuen parte eta errespetuaren kontzientzia orokorra egiaztatu da, eta jarrera horrek Urdaibai bikaintasuneko lurralde lez sendotzeko oinarriak jartzen dauz. Orain, lurraldearentzat, administrazioentzat eta enpresentzat erronka barria da lurralde- eta enpresa-bikaintasun hau gura diran merkatuetara iritsiko dan faktore bereizgarri bihurtzea. **UM**

Ezagutu Gaitegiz Arteaga
pausoz pauso



Sorginen ORDUA Urdaibain

"Laino guztien azpitik, sasi guztien gainetik", Konjuru honek, herri sinesmenaren arabera, sorginak Akelarretara eramaten ebazan. Geurre herriek errezelo handiz gordetzen ebezan sorginak eta akelarreen istorioak, eta horreek arrastoa utzi eben oroimen kolektiboan, hizkuntzan, sineskerietan eta Urdaibaiko kokapen desbardenetan.

Jose Migel Barandiaranek, euskal antropologiaren aitak, eta Julio Caro Barojak, historialari, etnologo eta antropologoak, Euskadiko sorginen inguruko hamaika datu, istorio, kontakizun eta elezahar bildu ebezan euren lanetan. Funtsezko lana da, eta gaur egun *vademecum* lez balio deusku sorginkeriaz berba egiterakoan.

Caro Barojaren esanetan, "*Euskal sorginkeria herrialdeko egoera sozial berezi bati lotuta agertzen da, eta jentiltasun tradizio bati atxikita, izan be XV. mendean gaur egun hain katolikoak diren euskaldunak jentilak zirala esaten zan*". Jentilak, euskal mitologiako pertsonaiak ziran, ikaragarritzko indarra eukazanak, kristau aurreko euskal herriaren ordezkari izan eitekezanak.

Sorginenganako sinesmena Urdaibain oso

presente dagozen elezahar, berba eta toponimia lez iritsi da gaur egunera arte. Sinsogorak gutxi ziran eta sorginak aipatzea arriskutsutzat jotzen zan. Beste garai batzuetan, "*izena daukon guztia existiduten da*" esaten zan, Ataunen, Oiartzunen eta Kortezubin erabiltzen zan esamoldea. Bermeo bezalako kostaldeko herrietan, itsasora ateratzen ziranean, sorginaz berba egitea ia tabua zan. Berba egin, halere, berba egiten zan.

Ibarrangelun 1920an esaten zan sorginak normalean gauez agertzen zirala zubietan, bidegurutzetan eta hildakoen gurutzeak edo hilarriak dagozen lekuetan. Atzarreko San Pedroranzko igoeran, Akordatik, bidezidorren bidegurutze batean, "dantzaleku" izeneko gunea dago, bertan inguruko sorginek gaueko bilerak egiten ebezela uste zan. Halaber, bilera eguna lekuaren

arabera aldatzen zan, Resurrección María de Azkuek jaso ebanez, Kortezubin sorgin bilerak barikuetan zirala uste zan.

Akelarrea, "akerraren larrea", zan sorginak batzen ziran lekuaren izena. Gaur egun, berba hau, aker itxurako deabruaren eta sorginen arteko bilerak adierazteko erabiltzen da. Urdaibain, herri sinesmenaren arabera sorginak batzen ziran larre, zelai edo eremuek izen ezberdinak daukez. Muruetan Etxebartxuko-landa egoan, Gautegiz Arteagan Akerlanda, Ondartzagane Mundakan eta Muxikan, Ibarruri auzoan, Eperlanda.

Normalean, sorginak euren batzarretara naturaz gaindi joaten zirala uste zan. Bidaia horreek Bermeo, Kortezubi, Murueta eta Muxikako elezaharretan jasotzen ziran. Ibarruriko abadeak Aita Barandiarani kontatu eutson elezaharra berreskuratu dogu: *"Ibarrurin bizi dan nire lagun Txomin Artetxek 1970eko otsailaren 25ean esan eustan herri hartan Muniketa izeneko auzo bat egoala, eta bertan, sorginak batzen zirala. Bertan, herri bereko etxe batean bi ahizta neskazahar eta morroi bat bizi izan ei ziran.*

Gauetan, zerbitzaria lotara erretiratzen zanean, neskazarrak ezkaratzen egoten ziran. Gau batean zerbitzaria ezkaratzara begira jarri zan ateko zirrikitu batetik, ahiztak zertan ari ziran ikusteko. Orduan ikusi eban zelan igurzten eben ipurdia errautsez, eta gero, "Lañooperik lañope, sasi guztien gainetik, Eperlanda'ko landara" esanez tximiniatik gora joaten zirala. Neskazahar biak nora joaten ziran jakin gura, zerbitzaria ezkaratzen sartu zan, eta, haiek bezala, bere ipurdia etxeko errautsez igurtzi eban, eta oin bat txikilluari lotuta ebala, esan eban: "Sasiperik sasipe, laño guztien gainetik, Eperlandako landara". Eta berehala, ibilbideko sasi guztien azpitik landak zeharkatuz eta txikilluaren zama gorabehera, Eperlandan dana zaurituta agertu zan.

Han ikusi ebezan bi neskazaharrak sorgin askogaz. Leku hartako zeremonietako bat batzarraren buru zan akerrari musu emotea zan. Bere txanda iritsi zanean, zerbitzaria be hurbildu zan musu emotera. Animalia

itxura hura ikusita, ozenki esan eban: Jesus, hau zikina! Morroiaren oihua entzutean, Jesus aipatuz, sorgin guztiek alde egin eben, eta morroia bakarrik geratu zan larrean, bere txikillua oinean lotuta ebala. Bere bankua sorbaldan kargatuz oinez itzuli zan Ibarruriko bere etxera."

Antzeko istorio bat kontatzen zan Muruetan 1922an, Jesus Orbe jaunak kontatutako kontakizun herrikoia Barandiaranek be jaso ebana. Istorio honek ugazabandira eta bere morroia dauz ardatz, eta untura bat agertzen da sorgina garraiatzeko. *"Ugazabandrak, morroiaz gomuta barik, ontzi txiki bat hartu ta barruko unturiegaz igurtzi ei ebazan gorputzeko alde batzuk, eta "zirrist" joan zan tximiniatik gora, odei guztien azpitik ta sasi guztien ganetik esanda". Kasu honetan, "esaldi garraiatzailer" txarto esateagatik sasiez zauritutako morroia herrira itzuli zan eta gertatutakoa agintarien aurrean salatu eban.*


Kostaldeak be gordetzen dauz sorginei buruzko elezaharrak eta kontakizunak. Bermeon, esaten zan sorgin batek arrantzale bati eskatu eutsozala arrantzatu barri ebazan antxoak, eta arrantzaleak ezezkoa emon ondoren, berak eta bere ahizta sorginek plan hau egin ebela: *"Bihar, arrantzara ateratzen danean, zain egongo gara. Hiru olatu erraldoi bihurtuko gara. Lehenengoak kezkatu egingo deutso, bigarrenak izutu, eta hirugarrenak hondoratu!"* Arrantzaleak olatuei aurre egin eutsen eta bere arpoia olaturik mehatxagarrienaren kontra bota eban, olatua gorri bihurtu eta desagertu egin zan. Handik egun batzuetara, Aritzatxuko hondartzan sorgin fama eukan emakume haren lepokoa odolez zikinduta agertu zan.

Sorginkerien inguruko kondairak eta mitoak bezainbeste forma hartzen ebezan sorginek. Aita Barandiaranek idatzi eban "Euskal Folklore" n, Nabarnizen, 1920an, kontatzen zala neska gazte batek katu bat aurkitu ebala bidean. Makila bategaz jo eta hanka bat hautsi eutson. Auzoko andra bat agertu zan gero, besoa urratuta. Sorginen metamorfosiaren inguruko beste istorio batek Elantxobera garamatza, ber-

tan garai berean arrantzale bat arrantzara urten zala esaten zan. Aingura botatzen saiatu zanean, une hartan agertu zan katu batengan untzetu zan. Etxera bueltatu zanean, emaztea zaurituta aurkitu eban. Sorgina zan. Ez da oso ohikoa sorgina txakur bihurtzea baina Aita Angel Mada-riagak 1921ean bidalitako Bermeoko kontakizun batean honako hau jasotzen zan: *"beste askotan lez, behin etorren Bermeon arrantzale bat portutik bere etxera, erramua eta arrain-otzara bizkarrean ekazela. Eta halako baten txakurtxo bat agertu ei jakon ahausika. Eta arrantzaleek egiten ei eutson "uuu!", baina txakurrek joan gura ez. Azkenean, arrantzalea haserretu ei zan eta erramuaz txakurra jo eta izterrak hausi eutsozan. Biharamonean andra bat etorri ei jakon etxera - gaixorik benetan - (Galdetzerra) ea zergatik jo eban eta zergatik hautsi eutsozan izterrak erramuagaz, eta auzia epailearen aurrera ipini behar eutsola".*

Sorginek ondo baino hobeto zaintzen ebezan zenbait gauza, adibidez, jostorra-tza. Hauetan, herri sinesmenaren arabera, sorginen boterea gordetzen daben jenioak egoazan. Jenio hauek izen ezberdinak hartzen ebezan zonaldearen arabera eta adibidez Forun *bestemutillak* lez ezagutzen ziran eta Ibarrurin *patuek*. Sorgina ahal da izan jenio hoiei esker eta intsektu edo gizon txikerren itxura hartzen ei eben.

Sorginkeriak, konjuruak, erritu paganoak, sorginak ... geure historian dagoz. "Euskal sorginak" xaman indigenekaz pareka leitekez. Bedarren sekretu medizinalak ezagutzen ebezan emakumeak ziran, parterak eta emaginak, sendagileak ziran, eta baita mundu espiritualeko aholkulariak be. **UM**



Ez da nahikoa itsaso eskuzabal bat edukitzea, gure abereak gurtzea, ezta lur emankor bat izatea ere. Zerbait gehiago behar da. Horregatik, Euskadin kalitate goreneko 18 produktuek jatorri, zapore eta benekotasun zigilua dute.

No basta con un mar generoso, con rendir culto a nuestro ganado ni con tener un clima fértil para el cultivo. Hace falta algo más. Por eso, en Euskadi los 18 productos de calidad superior tienen un sello de origen, sabor y autenticidad.



Goi-mailako
elikagaiak
Alimentos de
calidad superior

Onetan,
onena.

De lo bueno,
lo mejor.



Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO


GERNIKA ELKARTEGIA

Busturialdea-Urdaibain zure proiektua garatzeko eta zeure enpresa sendotzeko behar duzun espazioa. Abantailaz betea.

Industria-moduluak, bulegoak eta espazio partekatuak dituen enpresa-zentroa, herriko erdigunetik bost minutura, oinez. Ekin hemen zure negozioari, garatu hemen zure proiektua.



Tel: 946 073 700
www.azpiegiturak.bizkaia.eus



"Gernika Elkartegia leku pribilegiatua da inguruko enpresentzat. Erdigunean dagoen eraikin moderno honek Apanymantelen irudi modernoa bezeroengana zuzentzen du. Giroa dinamikoa eta gaztea da, eta startup ugari dago enpresen artean. Apanymantelentzat hobekuntza nabarmena izan da lanaren kalitatean eta enpresaren irudian. Oso pozik gaude."

APANYMANTEL



Bisita gaitzazu!

"Orain urte 2 etorri ginen Gernika-Lumoko elkartegira. Pozik gaude, ondo kokatuta dago eta espazio propio txukun eta eroso sortu ahal izan dugu enpresarentzat. Horrez gain, espazio komunak ondo zainduta daude eta gure lan jarduera aurrera eramatea errazten dute; bilera gelak, aretoa, aparkalekua..."

FILMAK



"Oinez, gertu. Etxetik oinez hel nintzatekeen lantoki bat nahi nuen osasungarria eta lanerako mesedegarria delako. Ordu dexente pasa behar izaten ditut lanean eta uneoro argi natural zuzena izatea oso lagungarria suertatzen zait. Gogoz eta neurrira prestatutako eraikin berria merkatuko koste hoberenean topatzea aukera ezin hobea da. Gainera, eskualdeko zure mailako beste profesionalekin harremanetara bultzatzen zaitun giroa sortzen ari da."

PABLO ORBEA, Arkitektoa




Agenda

Ibilbideak

Hondartzak

Albisteak

Izapideak



BizkaiUP Bizkaiko app-a da

Zure app-a

